

UDALBATZA OSOAK 2024KO UZTAILAREN 02AN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

Azpeitian, 2024ko uztailaren 2an, Udaletxeko bilkura-areto nagusian elkartu da Udalbatza Osoa lehenengo deialdian eta ohizko bilkuran, aztergai-zerrendako gaiak eztabaidatu eta erabakitzeko. Nagore Alkorta Elorza alkatea buru dela, eta batzarra osatzen duten zinegotzi denak bertan direla,⁴ izan ezik.

Honako akordioak hartu dira:

- 1.- Udalbatzak 2024ko ekainaren 4an eta ekainaren 18an egindako bilkuraren aktak onartu dira.
- 2.- Udalaren, bere organismo autonomiadunen eta Azpeitia Berritzen S.A.ren 2023ko ekitaldiko kontu-orokorra onartzea.
- 3.- Udalaren Kontuhartzaileak 2023ko eragozpenei buruz egindako txostenaren berri izan dute udalbatzako kideek.
- 4.- Udalaren, bere organismo autonomiadunen eta Azpeitia Berritzen S.A.ren ordainsarien igoera onartu da.
- 5.- Udalbiltza Partzuergoaren Kontseilu Nagusian Udalaren honako ordezkari izendatu dira Leire Goenaga Uzkuadun (titularra) eta Ander Larrañaga Zinkunegi (ordezkoa).
- 6.- Azpeitiko Euskara Patronatua desegin eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak Udalak bere bitartekoen bidez zuzenean kudeatzea onartu da.
- 7.- Azpeitiko Kirol Patronatua desegin eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak Udalak bere bitartekoen bidez zuzenean kudeatzea onartu da.
- 8.- Azpeitiko Udalerriko Zarataren mapari hasierako onarpena eman zaio.
- 9.- Azpeitiko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa onartzea.
- 10.- 2025. ekitaldirako herriko jai eguna urtarrilaren 20an ospatzen den SAN SEBASTIAN eguna izango dela jakinarazi zaie udalbatzako kideei.

11.- 2024ko maiatzeko ebazpenen berri eman da.

12.- Udabatzak Ehbildu taldeak aurkeztutako Palestinaren egoari buruzko mozioa onartu du, ez aldiz EAJ taldeak ekialde urbileko muturreko egoerari buruz aurkeztutakoa.

13.- Ez da egon erregu edo galderarik.

Azpeitia, 2024ko abuztuaren 28a
UDALAREN IDAZKARIA,

Olatz Eizaguirre Orbegozo